

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGAJn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2022ko Otsailaren 22an egindako ohiko bilkuran, adierazpen hau onartzea erabaki du, gehiengoz, Bozeramaileen Batzordeak:

“EKIALDEKO JERUSALENI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

“1967an, Israelek legez kontra atxiki zituen Ekialdeko Jerusalem eta 28 herri mugakide, eta NBEko Segurtasun Kontseiluak zein Batzar Nagusiak hainbatetan eta hainbatetan gaitzetsi dute atxikimendu hori, Ekialdeko Jerusalem lurralde palestinar okupatuaren osagaia dela uste dute-eta. Harrezkero, Israelek garatzen duen politikan, biztanleen nahitazeko lekualdaketa, kolonialismoa eta ekialdeko Jerusalemgo biztanle palestinarren aurkako apartheidia dira nagusi. Politika horren esparruan, Israelgo gobernuak teleferikoa eraikitze proiektua onartu du aurten, eta Mendebaldeko Jerusalemdik joango da hiriko ekialdean eta 1967tik okupatuta dagoen lurraldean kokatutako Hiri Zaharreko Erosten Harresiraino.

Eraikuntzarako proposamena 2017an iragarri zen “turismoa areagotzeko eta Erosten Harresira errazago iristeko” proiektu nazionalaren esparruan. Edonola ere, beste estrategia bat da, Jerusalem judu egiteko eta kolonoek are gehiago okupatzeko.

Lehenengo eta behin, teleferikoak hiriko leku arkeologiko eta historikoak suntsituko litzukeenez eta paisaia aldatuko lukeenez, sinbolo arabiarren edozein aztarna ezabatuko litzateke. Hori dela eta, ez litzateke beteko UNESCOk Munduan Arriskuan dagoen Ondarearen zerrendan agertzen diren lekuetako paisaia aldatu dezaketen proiektuak abian ez jartzeko inposatutako betebeharra, eta

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 22 de febrero de 2022, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

“DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE JERUSALÉN ESTE

En 1967, Israel anexionó de forma ilegal Jerusalén Este y 28 pueblos colindantes, anexión condenada en múltiples ocasiones por el Consejo de Seguridad y la Asamblea General de la ONU que consideran Jerusalén Este como parte integral del territorio Palestino ocupado. Desde entonces, Israel desarrolla una política de traslado forzoso de población, colonialismo y Apartheid contra la población palestina de Jerusalén Este. Como parte de esta política, el Gobierno israelí ha aprobado este año el proyecto de construcción de un teleférico que irá de Jerusalén Oeste hasta el Muro de las Lamentaciones, en la Ciudad Vieja, situada en la parte oriental de la ciudad y territorio ocupado desde 1967.

La propuesta de construcción se anunció en 2017 como parte de un proyecto nacional para “incrementar el turismo y facilitar el acceso al Muro de las Lamentaciones”, sin embargo, se trata de una estrategia más para judaizar Jerusalén y materializar aún más su ocupación por parte de los colonos.

En primer lugar, el teleférico destruiría sitios arqueológicos e históricos de la ciudad y modificaría el paisaje eliminando cualquier rastro de símbolos árabe, lo cual incumple con la obligación impuesta por la UNESCO de no implementar proyectos que puedan alterar el paisaje de lugares que formen parte de la lista del Patrimonio Mundial en Peligro, como es la Ciudad



horixe bera da Jerusalemgo Hiri Zaharraren kasua. Eraikuntza-planaren diseinuaren arabera, teleferikoa auzo palestinarren gainetik igaroko denez, eraikin asko eraitsi beharko dituzte, eta, horrez gain, lur palestinarraz jabetzeko dinamika indartuko litzateke.

Teleferikoak hiriko mendebaldeko sektorea eta ekialdeko sektorea lotuko lituzkeenez, agerpen judua sendotuko litzateke bertan. Hartara, Israelgo gobernuak Jerusalemgo profil arabiar tradizionala ezabatuko luke, eta hiria judua baino ez dela emango luke.

Azken batean, zenbait proiektu elkarlotzeko prozesuaren parte da teleferikoaren eraikuntza, eta Ekialdeko Jerusalem kolonizatze eta judu egiteko prozesua indartzea du helburu. Palestinako Kanpo Arazoetako eta Erbesteratuen Ministerioak eta giza eskubideen aldeko zenbait erakunde palestinarrek proiektua salatu dute, eta esku hartu dezala eskatu diote nazioarteari, okupaziorako proiektu hori geldiarazi ahal izateko.

Hori dela eta, sinatzen duten taldeek Adierazpen instituzional hau aurkezten dute,

1. Donostiako Udalak, Geure elkartasuna adierazten die herri palestinarri eta, zehatz-mehatz, Ekialdeko Jerusalemgo biztanle palestinarrei". =====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2022ko martxoaren 2an.

Antigua de Jerusalén. El plan de construcción está diseñado de modo que el teleférico pase por encima de barrios palestinos, lo que implica no solo que muchos edificios tendrán que ser demolidos, sino que también se reforzaría la dinámica de apropiación de la tierra palestina.

El teleférico conectaría el sector occidental con el sector oriental de la ciudad, consolidando así la presencia judía allí. De esta manera, el gobierno israelí consigue borrar el tradicional perfil árabe de Jerusalén y dar la impresión de que se trata de una ciudad exclusivamente judía.

En definitiva, la construcción del teleférico es parte de la interconexión de varios proyectos para fortalecer la colonización y judaización de Jerusalén Este. Tanto el Ministerio de Asuntos Exteriores y Expatriados de Palestina como varias organizaciones palestinas por los derechos humanos han denunciado ya el proyecto y han exigido la intervención de la comunidad internacional para frenar la ejecución de este proyecto de ocupación.

Es por ello que los grupos firmantes presentan la siguiente Declaración Institucional,

1. El Ayuntamiento de San Sebastián declara su solidaridad con el pueblo palestino y en concreto con la población palestina en Jerusalén Este". =====

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 2 de marzo de 2022.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

**ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**